

“*Vespa velutina*,  
antza, kiwi-kargamentu  
batean iritsi zen  
Bordelera. Merkantzia  
guztiak aztertzen ez  
badira eta dakarten  
fauna eta flora zaintzen  
ez bada, Europa espezie  
inbaditzaileen bazar  
handi bat bihurtuko da”

ARTURO GOLDARACENA  
entomologoa, Neiker-Tecnalia

Liztor asiarra (*Vespa velutina*)  
espezie inbaditzailea da  
Europan. Euskal Herrira ere iritsi  
da, eta arazo handia sortzen ari  
da erlauntzetan. Erleak jaten  
ditu, eta asko ugaritu da.

ARGAZKIAK: © DANIEL SOLABARRIETA

# Liztor asiarra





# erle-ehizan



SARBAN+

Ikusi eta entzun *Teknopoliseko* eta *Norteko Ferrokarrilako* erreportajeak webgunean.



“*h*iru bat zentimetro luze da, eta erregina 3,5 izan liteke. Zazpi milimetroko eztena du. Liztor europarraren (*Vespa crabro*) eta asiarraren arteko aldea kolorea besterik ez da. Asiarrak hanka-muturrak horiak ditu, eta bizkar gaineko segmentuetan beltz gehiago du europarrak baino. Bizkarra beltza du. Europarrak, aldiz, kaoba-kolorekoa du. Bi liztorrek jaten dituzte erleak, europarrak eta asiarrak. Baina asiarrak hamar mila aldiz gehiago jaiotzen dira, eta desoreka handia ekarri du horrek”

JULIAN URKIOLA  
Gipuzkoako Erlezainen Elkarteko presidentea

“*Nire ustez, erlea ez da inoiz desagertuko, gizakiak hazitako intsektu bat baita. Eta polinizazioa desagertuko da? Ezta ere. Polinizazioa beste lanik egiten ez duen milaka intsektu dago ekosisteman. Beste kontu bat da erleak desagertzeak zer arazo ekonomiko eragingo dituen*”

ARTURO GOLDARACENA  
entomologoa, Neiker-Tecnalia

“*Erlauntzara bueltan datorren erlea nekatuta eta kargatuta dator; hori da liztorrentzat harrapakinik politena. Lepotik eusten dio erleari, eta zuhaitz-izkinara eramaten du; ordurako ito du. Han, jaten hasten da, burutik; guk otarrainxkak jaten ditugun bezala, zurrupatu egiten du. Gero, erlearen burua moztu, eta bota egiten du. Eta tripa barrutik hasten da jaten. Barruko ezitia, eta jan lezakeen guztia jaten du. Bukatzeko, bizkar gainetik moztu, hegalak eta hankak moztu, eta trontzorik onena habiara eramaten du, erreginak eta kumeek jan dezaten*”

JULIAN URKIOLA  
Gipuzkoako Erlezainen Elkarteko presidentea







Argazki honek 2012ko Fotciencia sariketan accesita irabazi zuen, kategoria orokorrean. FECYTEk eta CSICek antolatzen duten argazkilaritza zientifikoko lehiaketa da Fotciencia.



SAREAN+



## Danel Solabarrieta

Natura-argazkilari amateurra



ARG.: EIDER CARTON/ELHUYAR FUNDAZIOA

Argazkiak Usurbilgo erlauntza batean egin zituen Danel Solabarrietak. Dozenaka liztor inguruan hegan zituela jardun zuen lanean. Lan zaila, azkar mugitzen ari diren animaliak gertutik fokuratu behar zirelako, baina, aldi berean, lan eman-korra: atera zituen argazkietako batek 2012ko Fotciencia sariketan accesita irabazi zuen, kategoria orokorrean.

“Lehendabizi argia neurtu nuen, eta argiaren parametroak finkatuta, saiatu nintzen ondo fokuratzen. Helburua zen liztorren begiak ondo fokuratuta ateratzea. Horrek esan nahi du hogeitaz argazkitik batek bakarrik balioko duela. Liztorra oso gertu izan behar nuen objektibotik, hamar zentimetrora gutxi gorabehera. Ez nuen objektiboarekin fokuratzen, baizik eta, hori finkatuta mantenduta, kamera aurrera eta atzera mugitzen nuen. Azkenean, begiak ondo fokuratuta zizuten artean aukeratu nituen enkoadratze onenak zizutenak. Batzuetan, berriz enkoadratzen ditut. Alegia, enkoadratzea gerora egin dut.

Horrelako argazkietarako, denbora pasatzea da kontua. Bostehun argazki inguru egin, adibidez —zenbat eta gehiago, hobeto—, eta, gero, aukeraketa oso zorrotza egin; handik bat edo bi argazki onenak aukeratu. Ez da posible joan, bost minutuan bi edo hiru argazki egin, eta ondo ateratzea.

Oso pozik nago sariarekin. Argazkia ateratzeaz gain, sariketarako beste lanketa bat egin nuen aurkeztutako argazkiarekin: dokumentatu egin nintzen, eta horrekin argazkiari laguntzen dion testu bat prestatu nuen, ikusten dena modu erakargarrian azaltzeko. Eta saritua izan da; pozik nago”.